



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioa 2017

Jarraipen-txostena

2017

AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA.....	5
----	-----------------	---

I. ATALA:BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN JARRAIPENA.2017KO LABURPENA..... 6

1.	IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK	7
2.	EBALUAZIOAREN EMAITZAK:GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK.....	9
2.1.	Gobernantza berdintasunerantz eramateko neurriei lotutako emaitzak.....	9
2.1.1.	Berdintasun-politiken plangintza EAEn.....	9
2.1.2.	Berdintasunerako unitate administratiboak eta EAeko administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak.....	11
2.1.3.	Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAeko aurrekontuetan	14
2.1.4.	Arauen genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa EAeko herri-erakundeetan.....	17
2.1.5.	Partaidetza berdintasun-politiketan.....	18
2.1.6.	Berdintasun-alorreko prestakuntza administrazio publikoetan	18
2.1.7.	Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan	21
2.1.8.	Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan	22
2.2.	Esku hartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak	25
2.2.1.	Esku-hartzeen helburu politikoak	25
2.2.2.	Berdintasun-ekintzen gaiak	27
2.2.3.	Esku-hartze mota	28
2.2.3.1.	Prestakuntza	29
2.2.3.2.	Sentsibilizazioa.....	32
2.2.3.3.	Informazioa, ezagutza eta analisia	33
2.2.4.	Ekipamenduak eta zerbitzuak sortu eta kudeatzea	35
2.2.5.	Berdintasun-ekintzen onuradunenganako hurbilpena (erakundeak nahiz pertsonak)	36
2.2.5.1.	Ekintzen onuradunak	36
2.2.6.	Ekintzak egokitzeko neurrien erabilera	37
2.2.7.	Esku-hartzeen kostua.....	38

II. ATALA: EAeko BOTERE PUBLIKOEN BERDINTASUNAREN ALORREAN JORRATUTAKO JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIO XEHAKATUA 2017 40

1.	GOBERNANTZA	41
1.1.	Berdintasun-plangintza.....	41
1.2.	Unitate administratiboak eta langileak	43
1.3.	Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak	45
1.4.	Inpaktuaren aurretiko ebaluazioak	46
1.5.	Partaidetza berdintasun-politiketan	47
1.6.	Berdintasunari buruzko prestakuntza	48
1.7.	Berdintasun-klausula kontratazio publikoetan	50
1.8.	Berdintasun-alorreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan	52
2.	ESKU-HARTZEAK.....	56

Taulen aurkibidea

1. taula:	EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua. 2017	7
2. taula:	Berdintasun-planak eta -programak indarrean dituzten erakunde partaideen kopurua eta planen ezaugarriak. 2017.....	41
3. taula:	Barneko berdintasun-planak dituzten erakundeen kopurua. 2017	42
4. taula:	Barneko berdintasun-planik ez duten erakundeen lan-antolamenduan txertatutako neurriak. 2017.....	42
5. taula:	Berdintasunerako organo edo unitate administratiboak dituzten erakundeen kopurua. 2017	43
6. taula:	Berdintasuna bultzatzen ari den enpleguaren ezaugarriak. 2017	43
7. taula:	Langileak, kontratu-motaren arabera. 2017	43
8. taula:	Berdintasuna bultzatzeko eginkizuna duten teknikariak. 2017	43
9. taula:	Dedikazio eskusiboan ari diren langileak, lanaldi-motaren arabera. 2017	44
10. taula:	Berdintasun-unitateen jarduera batzuen ezaugarriak. 2017.....	44
11. taula:	Aurrekontu orokorra eta berdintasunerako berariaz identifikatutakoa (eurotan). 2017.....	45
12. taula:	Gauzatutako berdintasun-aurrekontuen xehakapena (eurotan). 2017.....	45
13. taula:	Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak. 2017	45
14. taula:	Inpaktu-ebaluazioa duten arauen kopurua eta ezaugarriak. 2017	46
15. taula:	Erakundeek araudietan berdintasuna lortzeko ezarri dituzten neurriak. 2017	46
16. taula:	Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioak egiteko jarraibideak, akordioak eta abar onartzea. 2017.....	46
17. taula:	Herritarren partaidetza eta berdintasuna. 2017	47
18. taula:	Erakundeek sustatutako barne-prestakuntza. 2017	48
19. taula:	Erakundeek sustatutako berdintasun-alorreko barne-prestakuntza. 2017.....	48
20. taula:	Berdintasuneko barne-prestakuntzako partaidetza, kategoriaren arabera banakatuta. 2017	48
21. taula:	Barnekoa eta HAE Erena ez den edozein motatako prestakuntzako partaidetza. 2017	49
22. taula:	Berdintasun-alorreko prestakuntzaren banakapena (aurreko taula). 2017	49
23. taula:	IVAPek bultzaturiko berdintasun alorreko prestakuntza. 2017.....	49
24. taula:	Berdintasun-irizpideak kontratazioetan. 2017.....	50
25. taula:	Berdintasun-irizpideak hitzarmenetan. 2017.....	50
26. taula:	Berdintasun-irizpideak diru-laguntzetan eta laguntzetan. 2017.....	50
27. taula:	Berdintasun-irizpideak beketan. 2017.....	51
28. taula:	Kontratazio-prozesuetan irizpideak ezartzeko arau, gidalerro eta abarren onarpena. 2017	51
29. taula:	Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia txertatzea. 2017.....	52
30. taula:	Berdintasunari lotu gabeko koordinazio-egituretan parte hartzea. 2017	52
31. taula:	Sail arteko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean. 2017.....	52
32. taula:	Sail barneko koordinaziorako egituren bilkura-kopurua berdintasun-alorrean. 2017.....	53
33. taula:	Beste koordinazio-egitura batzuk eta indarkeriari buruzko protokoloak. 2017	53
34. taula:	Parte-hartzea berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretan. 2017	53
35. taula:	Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea, era sistematikoan edo puntualean. 2017	53
36. taula:	Prentsa-oharrak eta azterlanak. 2017.....	54
37. taula:	Hautapen-prozesuen kopurua eta ezaugarriak. 2017	54
38. taula:	Berdintasun-plazak dituzten prozesuak. 2017	54
39. taula:	Enplegu publikoan sartzeko, sustatzeko... eta sariak emateko epaimahaiak. 2017	55
40. taula:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2017	55
41. taula:	Identifikatutako jarduketa-kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	56
42. taula:	Aurreko urtekoen jarraipena izan diren jarduketan kopurua eta ehunekoa, erakunde-motaren arabera. 2017.....	56
43. taula:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketan kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	56
44. taula:	Gai jakin bat garatzen duten jarduketan kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017.....	57
45. taula:	Esku-hartze mota berezi modura egin diren jarduketan kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	57
46. taula:	Herritarrak prestatzeko jardueretako partaideen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017.....	57
47. taula:	Prestakuntza-helburu zehatzetara zuzendutako jarduketan kopurua (herritarrentzako prestakuntza), erakunde-motaren arabera. 2017	58
48. taula:	Administrazioen zerbitzu publikoetako prestakuntza-jardueretako partaideen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	58
49. taula:	Zerbitzu Publikoetako langileentzako prestakuntza-jardueren kopurua, prestakuntza-helburuen eta erakunde-motaren arabera. 2017	58
50. taula:	Sentsibilizazio-, hedapen- eta komunikazio-jardueretako parte-hartzaileen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	58
51. taula:	Sentsibilizazio-jarduketan kopurua tipologiaren eta erakunde-motaren arabera. 2017	59
52. taula:	Jardunbide jakinetan oinarritutako informazio-, ezagutza-eta azterketa-jarduketan kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	59
53. taula:	Zerbitzu eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jardueren kopurua eta ezaugarriak, erakunde-motaren arabera. 2017	59

54. taula:	Azken hartzaile diren alorren araberako jarduketaren kopurua erakunde-mota bakoitzean. 2017	60
55. taula:	Gizon, emakume beste identitateei berariaz zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	60
56. taula:	Talde bereziei zuzendutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017.....	60
57. taula:	Beste berdintasun-helburu batzuentzat ere (ez soilik emakume eta gizonentzat) bideratutako jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017	60
58. taula:	Talde jakinetara egokitzeko neurriak jasotzen dituzten jarduketaren kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017.....	61
59. taula:	Jakinarazitako jarduketaren kostua, erakunde-motaren arabera. 2017	61

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa:	Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten erakundearen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017.....	10
2. grafikoa:	Ebaluazioan parte hartu duten erakundearen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2017.....	12
3. grafikoa:	EAEko berdintasun-langileak, erakundearen arabera. 2017.....	13
4. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berariazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2017	13
5. grafikoa:	Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, erakundearen arabera. 2017	14
6. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean gauzatutako aurrekontua, erakundearen arabera (mila eurokotan). 2017 .	15
7. grafikoa:	Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2017	16
8. grafikoa:	Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua eta araua neutralizat hartzen duten kopurua, erakundearen arabera. 2017	17
9. grafikoa:	Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osakeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2017.....	18
10. grafikoa:	EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alorrekoa) jaso duten langileak. 2017	19
11. grafikoa:	Administrazio publikoetako emakumeak eta gizonak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alorreko prestakuntzan. 2017.....	19
13. grafikoa:	Berdintasunean trebatu diren pertsonak, kategoria profesionalen arabera. 2017	20
14. grafikoa:	Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2017	21
15. grafikoa:	Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2017	22
16. grafikoa:	Berdintasun-alorreko unitateen eta langileen partaidetza euren erakundeetako koordinazio-egitura orokorretan.	23
17. grafikoa:	Berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2017	23
18. grafikoa:	Epaimahaietan eta auzitegiaren emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua. 2017	24
19. grafikoa:	Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2017	24
20. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2017	25
21. grafikoa:	Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketaren kopurua. 2017	26
22. grafikoa:	Gai zehatz bati lotuta jorratutako jarduketaren kopurua. 2017	27
23. grafikoa:	Jarduketa-kopurua esku-hartze motaren arabera. 2017	29
24. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako pertsonak (herritarak), erakundearen arabera. 2017.....	30
25. grafikoa:	Herritarak trebatzeko ekintzen kopurua, helburuaren arabera. 2017	30
26. grafikoa:	EAEko berdintasunean trebatutako langile publikoak, erakundearen arabera. 2017.....	31
27. grafikoa:	Zerbitzu publikoentzako prestakuntza-jarduketaren kopurua, helburuaren arabera. 2017.....	31
28. grafikoa:	Herritarrentzako prestakuntza eta administrazioetako langile publikoentzako prestakuntza parte hartu duten kopurua. 2017	32
29. grafikoa:	Berdintasun-alorreko sentsibilizazio-ekintzetako partaideak, erakunde sustatzailearen arabera. 2017	33
30. grafikoa:	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua, ekintza-motaren arabera. 2017.....	33
31. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2017	34
32. grafikoa:	Informazio-, ezagutza- eta analisi-jarduketaren kopurua, oinarriko edukiaren arabera. 2017	34
33. grafikoa:	Zerbitzuak eta ekipamenduak sortu eta kudeatzeko jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. 2017	35
34. grafikoa:	Zerbitzu eta baliabideak sortu, kudeatu eta aldatzeko jarduketaren kopurua. 2017.....	35
35. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, sexuaren arabera. 2017	36
36. grafikoa:	Talde jakinei zuzendutako ekintzen kopurua, beste aldagai batzuen arabera. 2017	36
37. grafikoa:	Bestelako desberdintasunak borrokatzea bideratutako ekintzen kopurua 2017	37
38. grafikoa:	Egokitzapen-neurriak dituzten ekintzen kopurua. 2015.....	37
39. grafikoa:	EAEko berdintasun-alorrean jorratutako jarduketaren kopurua, erakundearen arabera. Jarduketa guztiak eta kostua identifikatuta. 2017	38
40. grafikoa:	Jakinarazitako jarduketaren kostu osoa, erakundearen arabera. 2017	39
41. grafikoa:	Berdintasun-planak irudian zehaztutako sailen laguntzarekin ezartzen ari diren udalak eta foru-aldundiak 2017	41

0. AURKEZPENA

EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planak ezartzen du, ekitaldi bakoitzerako, derrigorrezkoa dela euskal herri-aginteek esparru horretan gauzatutako jarduketei buruzko ebaluazio-dokumentu bat egitea. 2017. urtea trantsizio moduko bat izan zen. Orduan amaitu zen aipatutako VI. Plana, X. Legealdikoa, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana egin zen, 2018an indarrean sartu zena.

Dokumentu honek VI. Planaren indarraldian egindako memorien formatu orokorrari eutsi dio. Hau da, herri-aginteen esku-hartzeak bi ataletan jasotzen ditu. Lehen atalean, EAEko erakundeek berdintasunaren esparruan gauzatutako esku-hartzeak biltzen dira labur-labur, bai genero-ikuspegia euren gobernantzan sartzeko egindakoak, bai emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburuak lortzeko egindakoak. Dokumentuaren bigarren atalean, informazioa xehe-xehe ageri da tauletan (Eranskin estatistikoa).

Emaitzak aurkezteko, lortu dituzten erakundeen tipologiaren arabera taldekatu dira. Hona hemen erakunde-motak: Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiak, udalak, mankomunitateak eta partzuergoak, organismo autonomoak eta erakunde publikoak, kapital publikoko enpresak eta beste erakunde batzuk.

Emaitzak aurkezteko, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren egiturari eutsi zaio, emaitzak errazago irakurtzeko eta beste aldi batzuetako emaitzekin alderatu ahal izateko. Beraz, bi multzo hauetan sailkatu dira:

- Gobernantza. EAEko herri-aginteek euren jardueran genero-ikuspegia sartzeko moduari buruzko informazioa. Gainera, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea esparru horretan zenbateraino betetzen duten aztertzen da.
- Jarduketak. Multzo horretan, herri-administrazioek VI. Planaren hiru ardatzetan egindako ekintzak azaltzen dira. Hauek dira ardatzok: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduz ematen; gizarte-antolaketa erantzunkidea; eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egitea.

Informazioa aplikazio informatiko baten bidez jasotzen da. Aplikazio horretan, erakunde bakoitzak galde-sortak betez ematen du informazioa. Hain zuzen, gobernantzaren arloari buruzko galde-sorta bat bete behar du, eta, gainera, ebaluatzen den urtean egindako jarduketa eta esku-hartze adina galde-sorta. Halaber, herri-erakundeetako berdintasun-politiken arduradunek informazio osagarria eta bestelako xehetasunak ere ematen dituzte, aplikazioan sartutako datuak hobeto ulertzen laguntzeko. Hemen aurkeztuko dugun informazioa 2017ko abendutik 2018ko apirilera bitartean jasotakoa da.

**I. ATALA:
BERDINTASUNERAKO VI. PLANAREN
JARRAIPENA.
2017KO LABURPENA**

1. IKUSPEGI METODOLOGIKOA. HASIERAKO GOGOETA BATZUK

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen esparru-planari jarraituz, herri-aginteez berdintasunaren esparruan dituzten printzipioak eta helburuak zehaztu behar dira. Hala ere, ez da ezartzen helburu horiek betetzeko zer jarduketa egin behar dituzten. Hortaz, administrazio bakoitzak bere ekintzak diseinatzeko proposatutako berdintasun-helburuak lortzeko. 2017an egindako jarraipena EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean jasotako adierazleetan oinarritzen da, eta, azken urte honetan, Planean proposatutako adierazleak eta helburuen arabera baloratu da.

Memoria honetan, EAEko berdintasun-politiken bilakaera aztertuko dugu betearazpenaren ikuspegitik, eta aurrerapenak politiken garapenaren arabera balioetsiko ditugu. Balorazio hori egitea errazagoa da gobernantzaren arloan; izan ere, 4/2005 Legeak eta ondorengo garapenak errazago neur daitezkeen helburu batzuk ezartzen ditu.

Txosten honetan, beren-beregi aztertuko dira honako alderdi hauek: herri-administrazioen berdintasun-plangintzaren garapena, berdintasunaren arloan lan egiten duten pertsonen kopuruaren eta ezaugarrien bilakaera, eta berdintasuna sustatzeko erabilitako finantzaketa. Gainera, txostenak zehaztu egiten du zer desberdintasun-esparrutan jartzen duten arreta EAEko herri-administrazioek euren esku-hartzeetan.

Memoria honetan, 130 erakunderen informazioa bildu eta aztertu da. Erakunde hauek izan dira: Eusko Jaurlaritzako sail guztiak; hiru foru-aldundiak; hainbat udal, mankomunitate eta partzuergo; erakunde autonomoak; erakunde publikoak; kapital publikoko enpresak; eta berdintasun-esparruan eginkizun garrantzitsua duten beste entitate eta erakunde batzuk (adibidez, EHU edo Batzar Nagusiak).

1. taula: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioan parte hartu duten erakundearen kopurua. 2017

Erakundeak	Kopurua
Eusko Jaurlaritzako sailak	12
Foru-aldundiak	3
Udalak ¹	69
Mankomunitateak eta Partzuergoak	10
Erakunde autonomoak eta publikoak	18
KAPITAL PUBLIKOKO ENPRESAK	14
Beste erakunde eta entitate batzuk	4
GUZTIRA	130

Hona hemen ebaluazio honetan parte hartu duten eta dokumentuan aurkeztutako informazioa eman duten erakunde eta entitateak:

¹63 udalek erantzun diote Gobernantzaren arloari, baina 6k jarduera-fitxak soilik txertatu dituzte.

Abaltzisketako Udala	Arrasateko Udala	Arabako Foru Aldundia
Abanto-Zierbenako Udala	Mungiako Udala	Bizkaiko Foru Aldundia
Amezketako Udala	Mutrikuko Udala	Gipuzkoako Foru Aldundia
Amorebieta-Etxanoko Udala	Nabarnizko Udala
Aramaioko Udala	Oiartzungo Udala	Emakunde
Arantzazuko Udala	Okondoko Udala
Areatzako Udala	Ordiziako Udala	EITB
Aretxabaletako Udala	Urduñako Udala	Poliziaren Euskal Akademia
Arraia-Maeztuko Udala	Orendaingo Udala	Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Arratzua-Ubarrundiako Udala	Plentziako Udala	Agentzia
Arrigorriagako Udala	Santurtziko Udala	Uraren Euskal Agentzia
Artziniegako Udala	Sopelako Udala	Lehiaren Euskal Agintaritza
Ataungo Udala	Soraluzeko Udala	Lan Harremanen Kontseilua
Aiarako Udala	Sukarrietako Udala	Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Azkoitiko Udala	Ugaoko Udala	Arazoetarako Batzordea
Bakioko Udala	Urdulizko Udala	Luis Aramburu Musika Eskola
Baliarraingo Udala	Zarauzko Udala	ETS. Euskal Trenbide Sarea
Balmasedako Udala	Zigoitiko Udala	Eustat
Barakaldoko Udala	Zuiako udala	EEE. Energiaren Euskal Erakundea
Barrikako Udala	Zumaiako udala	Gizarte Urgazpenerako Foru
Bediako Udala	Erakundea(GUFE)
Berangoko Udala	Arratiako Udalen Mankomunitatea	Finantzen Euskal Institutua
Bermeoko Udala	Aiarako Kuadrilla	HAEE
Bernedoko Udala	Kanpezuko-Arabako Mendialdeko Kuadrilla	Kontsumobide. Kontsumoko Euskal Institutua
Berrizko Udala	Gorbeialdeko Kuadrilla	Osakidetza
Bilboko Udala	Eudel	Osalan
Galdakaoko Udala	Haurreskolak	Uniquall
Dimako Udala	Enkarterriko Mankomunitatea
Donostiako Udala	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea	Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia,
Elgoibarko Udala	Urola Garaiko Mankomunitatea	SA
Elorrioko Udala	Saiaz Mankomunitatea	Alokabide
Erandioko Udala	Basquetour
Errenteriako Udala	Lehendakaritza	EJIE
Gautegiz Arteagako Udala	Osasun Saila	Euskadiko Kirol Portuak
Gernika-Lumoko Udala	Hezkuntza Saila	Euskotren
Getariako Udala	Lan eta Justizia Saila	Ihobe
Getxoko Udala	Kultura eta Hizkuntza Politika Saila	Itelazpi
Gordexolako Udala	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Izenpe
Gorlizko Udala	Segurtasun Saila	Neiker-Tecnalia
Gueñesko Udala	Ogasun eta Ekonomia Saila	Osatek
Hernaniko Udala	Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila	Arabako Teknologia Parkea SA
Irungo Udala	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	SPRI
Legutioko Udala	Ingurumen, Lurralde Plangintza eta	Visesa
Leioako Udala	Etxebizitza Saila
Lekeitioko Udala	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	HAZI
Lemoizko Udala		Arabako Batzar Nagusiak
Lezoko Udala		Bizkaiko Batzar Nagusiak
Lizartzako Udala		Euskal Herriko Unibertsitatea
Markina Xemeingo Udala		

2. EBALUAZIOAREN EMAITZAK:GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO JARDUKETAK

Txostenaren atal honetan, EAEko erakundeek 2017an egindako jarduketan jarraipenaren emaitza nagusiak laburbiltzen dira, Berdintasunerako VI. Planaren bi alderdietan banatuta. Hona hemen alderdiok: alde batetik, genero-ikuspegia zeharka sartzeari euskal herri-aginteen gobernantzan; beste batetik, VI. Planaren hiru ardatzen inguruan jorrotutako esku-hartzea: balio-aldaketa eta ahalduntzea, gizarte-erantzukidetasuna eta emakumeen kontrako indarkeria ezabatzea.

2.1. Gobernantza berdintasunerantz eramateko neurriei lotutako emaitzak

VI. Planak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4. artikuluan genero-mainstreamingari buruz emandako definizioa jasotzen du: *emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezkoak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.*

Txostenaren puntu horretan, genero-mainstreamingaren helburu horien inguruan lortutako emaitza nagusiak laburbiltzen dira. Geroago, memoriaren hirugarren kapituluaren sakonago azalduko dira.


2.1.1. Berdintasun-politiken plangintza EAEn

Herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan euren jarduerak planifikatu beharri dagokionez, 4/2005 Legeak hau dio: *Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira.*

Esparru-plan horren inguruan, Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta udalek EAEko Administrazio Orokorren plangintzatik eratorritako gidalerroekin bat etorriko diren berdintasun-planak edo -programak onartzen dituzte, nahiz eta guzti-guztietan onartzeko aldia eta indarraldia beti berdina ez izan. Orobat, kapital publikoa nagusi den enpresetara ere iristen da berdintasun-ahorrerako esku-hartzeak planifikatzeko betebeharra.

Eusko Jaurlaritzako sailek² eta foru-aldundiak urteak daramatzate berdintasun-alarreko plangintza egiten. Eta 2017an ere, indarreko planak zituzten. Udal-mailan, ordea, erakunde gutxiagok izan zuten berdintasun-alarreko plangintza indarrean. Parte hartu zuten 69 udaletatik 39k (% 56) adierazi dute euren berdintasun-planak indarrean zeudela (zazpik egite-prozesuan zeukaten).EHUK ere bere berdintasun-planaren berri eman du. Eskuarki, 2017ko jarraipenean parte hartutako 130 erakundeetatik 84k indarrean zituzten euren berdintasun-planak.

1. grafikoa: Parte hartu duten eta planak jorratu dituzten erakundeen kopurua, erakunde-motaren arabera. 2017



la adierazitako berdintasun-plan guztiak erronka nagusiak identifikatzen zituzten diagnostikoetan zeuden oinarrituta, eta, egiteko prozesuan, erakundeetako arlo teknikoek zein politikoez hartu zuten parte. Plan horien % 87k ebaluazioak egitea aurreikusten zuen; argi dago, beraz, plangintza pixkanaka sistematizatzen ari zela. Bestalde, herritarren parte-hartzea ez zen hain ohikoa plangintza horietan; udal-esparruan, berriz, oso ohikoa izan zen.

Berdintasun-planen zeharkakotasuna dela eta, erakundeetako sailek, plangintzan esku hartzeaz gain, berdintasuna sustatzeko zehaztutako jarduketak ezartzen ere hartu behar dute parte. Parte-hartze hori sistematikoa da Eusko Jaurlaritzako sailetan eta hiru foru-aldundietan. Udal-esparruan, alkatetza, kultura, euskara, kirolak eta gizarte-politika dira planak garatzen partaidetzarik handiena duten sailak.

Herritarren parte-hartzea ohikoagoa da foru- eta udal-esparruetako plangintzan, eta plana egin duten udalerrien % 87k herritarren ekarpenak hartu ditu aintzat plangintza egitean. Beste erakunde batzuetan, berriz, ez da batere ohikoa. Jakinarazitako kasu gehienetan, parte-hartze horrek berriaz bermatu du emakumeek, dela banaka dela elkarrekin bidez, egindako ekarpenak plangintzan txertatzea.

²2017an, sail berriak sortu ziren, eta haietako batzuek ez zuten plangintza espezifikorik egin.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko plangintza horrekin batera, 14 erakundek esan dute berdintasunari lotutako bestelako planak eta programak ere badituztela bereziki, emakumeen aurkako indarkeriarekin erlazionaturikoak.

Berdintasunari buruzko 3/2007 Lege Organikoak³erakundeei eskatzen dien barne-plangintza oso ezarrita dago kapital publikoko enpresetan (ebaluazioan parte hartutako 13etatik 8tan).2016an, EAEko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana onartu zen. Plan horrek berdintasun-mandatuen aplikazioa sistematizatu egiten du erakunde horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzetan. Ildo horretan, EHUren Berdintasun Plana azpimarratu behar da, lan-harremanekin lotutako zenbait ekintza barne hartzen baititu.

2.1.2. Berdintasunerako unitate administratiboak eta EAEko administrazioetan berdintasuna bultzatzen duten langileak

4/2005 Legeak ezartzen duenez, sailean bertan eta hari atxikitako erakunde autonomoetan berdintasuna bultzatzeko, koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko unitate administratibo bat izango dute, gutxienez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sail guztiek. Halaber, azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak betebeharrak hori bera ezartzen die erakunde autonomo, sozietate eta gainerako entitate publikoei.


Lege horrek, halaber, foru- eta toki-administrazioak egokitzeko premia arautzen du, bakoitzari dagokion esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, koordinatu eta garatuko dituen entitate, organo edo unitate administratibo bat egon dadin gutxienez.

Jarraipenean parte hartu duten ia erakundeen erdiek (130etatik 62k) berdintasunaren alorreko unitateak edo organoak dituzte. Orobat, beste 10ek adierazi dute berdintasuna sustatzeko egitura sortzen ari direla. Eusko Jaurlaritzako sailek⁴ eta foru-aldundiak badituzte egitura horiek, eta oso ohikoa da mankomunitateek eta partzuergoek ere izatea. Udal-administrazioetan, berriz, proportzioa erdia baino txikiagoa da. Parte hartu duten 69 udaletatik 32k adierazi dute unitate horietako bat dutela.

³ Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, barneko berdintasun-planak egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutako neurri-multzotzat hartuak dira, eta enpresan edo erakundearen emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna lortzea eta sexuagatiko diskriminazioa desagerraraztea dute helburu.

⁴ XI. Legealdian sortutako sail batean izan ezik. Ebaluazioa egin zenean, artean ez zuen berdintasun-unitaterik.

2. grafikoa: Ebaluazioan parte hartu duten erakundeen kopurua eta berdintasun-unitatea dutenena. 2017



Berdintasuna sustatzeko unitateak edo organoak administrazioen egituretan txertatzen dira, eta horretan datza haien garrantzia, berdintasuna zeharka bultzatzen baitute erakundeen eguneroko jardunean. Administrazioen egituretan badaude ere, horrek ez du esan nahi erakunde bakoitzean berdintasun-politikak sustatzeaz arduratzen diren pertsonak daudenik, baina argi uzten du erakundeen jardueretan berdintasuna garrantzitsua dela eta sistematizatuta dagoela. Beraz, berdintasun-unitateak dituzten 64 erakundeez gain, 21ek adierazi dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten pertsonak dituztela; batzuetan, pertsona horiek horretaz soilik arduratzen dira, eta, beste batzuetan, beste funtzio eta lan batzuekin uztartzen dute ardura hori.


Ildo horretan, jasotako informazioaren arabera EAEko erakunde publikoetan berdintasuna sustatzen duten pertsona guztiek dedikazio berbera ez dutela kontuan izanik, 2017an egindako ebaluazioan parte hartutako erakundeek jakinarazi zuten 213 pertsona aritu zirela arlo horretan, eta haietatik % 85 emakumeak zirela. EAEko herri-aginteetan berdintasuna sustatzen duten pertsonen ia % 40k lanaldi partzialean egiten du lan.

Emakundez⁵ gain berdintasun-alorreko organoak edo unitateak dituzten erakundeetan, berdintasuna sustatzen duten langileak berdintasun-teknikariak dira, gaiari buruzko berariazko prestakuntza dute, baita dedikazio eskusiboa ere, eta kontratu finkoa dute edo funtzionarioak dira. Udal-esparruan, antzeko egoera dago, baina proportzio txikiagoan.

Emakunde arlo horretan berariaz aritzen den erakundea denez, berdintasuna sustatzen duten pertsona gehiago ditu beste erakundeek baino. Eta berdintasunaren alorrean jarduten duten pertsonen kopurua azken urteetako berbera da. Foru-aldundietan, berriz, handitu egin da berdintasunaren sustapenean aritzen diren pertsonen kopurua; izan ere, Eusko Jaurjaritzaren sailtan jarduera horretaz arduratzen diren pertsonen kopuruaren berdintasua da. Jarraipenean parte hartu duten udaletan, 69 pertsonak egiten dute lan berdintasunaren alde; hots, EAEn berdintasun-teknikari gehien duten erakundeak dira udalak.

⁵Emakundek baditu beste sei langile, berdintasun-teknikariak izan gabe, berdintasunaren alorreko berariazko prestakuntza garrantzitsua dutenak. Kasu horretan, kudeaketan eta administrazioan lan egiten dutenek ere bultzatzen dituzte berdintasun-politikak.


3. grafikoa: EAEko berdintasun-langileak, erakundearen arabera. 2017




Oro har, berdintasuna sustatzen duten langileen erdiak administrazioko A mailan daude. Ondoren datoz «bestelakoak» atalean daudenak (% 22). Banaketa hori ez da berdina administrazio-esparru guztietan; esate baterako, udaletan, berdintasun-alorreko langileen % 45 dago A mailan, eta % 30 B mailan.

Berdintasunari buruzko prestakuntza esanguratsua (150 orduetik gorakoa) duten langile teknikoak 107 dira. Udaletan, dedikazio eskusiboa duten langileen % 41 lanaldi partzalean dago; Eusko Jauriaritzako sailetan eta Emakunden, berriz, langile guztiek dedikazio eskusiboa dute eta lanaldi osoan egiten dute lan.

4. grafikoa: Berdintasun-alorrean ari diren langile guztiak eta berriazko prestakuntza dutenak, erakundearen arabera. 2017



5. grafikoa: Berdintasun-alarrean ari diren langile guztiak eta dedikazio eskusiboa dutenak, erakundearen arabera. 2017



Berdintasun-arloan dedikazio eskusiboan lan egiten duten hiru pertsonatik bik lanaldi osoko lanpostua dute⁶. Erakundeetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean lan egiten duten pertsonen lanpostuei dagokienez, esan beharra dago Emakunden lanpostu horiek guztiak lanpostuen zerrendan daudela, eta foru-aldundietan eta Eusko Jauriaritzako sailetan, ia guztiak. Udal-esparruan, berriz, ohikoagoa da lanpostu horiek ez goatea lanpostuen zerrendan.

Besteak beste, gizarte-politikako, lankidetzako, kulturako... sailetan ohikoagoa da berdintasuna sustatzen duten pertsonen beste jarduerak batzuk eta barne-funtzioak (kudeaketa, antolaketa...) ere egin behar izatea.

2.1.3. Berdintasun-politiketara bideratutako baliabide ekonomikoak eta genero-ikuspegia EAEko aurrekontuetan


Herri-administrazioek, euren politikak gauzatzeko, aurrekontu egokiak behar dituzte. Ildo horretan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duenez, autonomia-erkidegoko administrazioek, foru-administrazioek eta toki-administrazioek lege horretan aurreikusitako funtzioak betetzeko eta neurriak hartzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitu eta zehaztuko dituzte beren urteko aurrekontuetan.

EAEko berdintasun-politiken jarraipen honetan parte hartu duten erakundeen erdiek baino gehiagok adierazi dute berdintasunerako berariazko aurrekontua dutela (68 erakunde) eta arlo horretan egindako gastua identifika dezaketela (71). Esleipenaren eta egikaritzapenaren arteko aldea 14 milioi euro ingurukoa izan da, eta guztizko gastua ia 45 milioi eurokoa; hots, jarraipen honetan jakinarazitako guztizko aurrekontuen %0,4 baino gutxiago (erakunde guztiek ez dute informazio hori eman).

⁶Udal-esparruan dedikazio eskusiboa duten langileen erdiak lanaldi partzialean ari dira.

Erakunde-mota bakoitzak egikaritutako aurrekontuen banaketa aztertuz gero, ikusiko dugu Eusko Jauriaritzak eta erakunde autonomoek dituztela aurrekonturik handienak (%81 hain zuzen ere). Azken honetan, Emakunde kontuan izanda hain zuzen ere, bere aurrekontu guztia berdintasuna sustatzeko erabiltzen da.


6. grafikoa: EAEko berdintasun-alarrean gauzatutako aurrekontua, erakundeen arabera (mila eurokotan). 2017



Aurrekontu orokorreari buruzko datuak emateaz gain, erakundeek adierazi dute aurrekontu horien zer zati bideratu zuten berdintasun-arloko planak eta programak finantzatzeko, eta zer zenbateko esleitu zieten berdintasun-egiturei (kasu horretan, unitate horietako langileen gastua eta berdintasuna sustatzeko ekintzetarako aurrekontua bereizten dira). Orobat, egitura eta zerbitzuetara bideratutako aurrekontuak ere identifikatu nahi izan dira. Banakapen hau gutxi gorabeherakoa da; izan ere, zenbait kasutan, berdintasun-unitateen kostua erakundeen planetan edo programetan sartzen da, eta, beraz, datu batzuk teilakatuta daude.

Dena den, banakapen honek aurrekontu-banaketari buruzko ikuspegi interesgarria ematen du: 10 eurotik 7 baino pixka bat gutxiago *planak eta programak* egiteko erabili ziren. Gainerako partidak askoz txikiagoak ziren: *berdintasun-unitateetako langileak* partida berdintasun-alarreko aurrekontu orokorraren %12,5koa izan zen, eta *egiturak eta zerbitzuak* partida, egikaritutako aurrekontuaren %9,6koa.

7. grafikoa: Aurrekontu xehakatuak (mila eurokotan). 2017



Emakundez gain, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru-aldundiek ere genero-ikuspegia sistematikoki erabiltzen dute aurrekontuak egiteko; beste erakunde batzuek, berriz, oso gutxi erabiltzen dute ikuspegi hori. Hain zuzen, bost udalek eta beste bost erakundek soilik adierazi dute genero-ikuspegia erabili dutela euren aurrekontuak egiteko. 2017an, 182 aurrekontu partzialek hartu zuten aintzat genero-ikuspegia; haietatik, udalek % 28 egin zuten, eta % 61 EAEko Administrazio Orokorrak eta foru-aldundiek. Erakundeek aurrekontuetan genero-ikuspegia erabiltzeko trebatzen eta lantaldeak sortzen jarraitzen dute, baina, berriro ere, genero-ikuspegiak oro eragin txikia izan du, Emakunden, Eusko Jaurlaritzako sailetan eta foru-aldundietan izan ezik.

2.1.4. Arauen genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa EAEko herri-erakundeetan

Europako erakundeen arabera, araudiak egitean aurretiko inpaktu-ebaluazioak erabiltzea herri-administrazioek eskura duten eraldaketa-tresna nagusietako bat da, gobernantzan emakumeen eta gizonen berdintasuna txertatzeko. Izan ere, 4/2005 Legearen 19. artikulua aintzat hartzen zuen garrantzi hori. Aipatutako artikulua xedatzen duenez, nahitaezkoa da administrazio publikoentzat arauak lantzen hasi aurretik berdintasunean izango duten inpaktua ebaluatzea.


Ebaluazio horien helburua da herri-administrazioek egiten dituzten arauetan jasotako jarduera guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunean zer inpaktu izan dezaketen aurreikustea, inpaktu negatiborik aurreikusiz gero neurri zuzentzaileak ezartze aldera, indarrean sartu aurretik.

Hiru foru-aldundiak, sailen aurretiko ebaluazio horiek sistematizatu egin dituzte (hurrenez hurren, genero-inpaktuari buruzko 231 txosten eta 40 txosten). Herri-administrazioen beste esparru batzuetan, aurrerapenak geldoagoak dira (udalek zazpi ebaluazio egin dituzte, eta erakunde autonomoek eta erakunde publikoek sei).

Aurretiko ebaluazioetan aztertutako arauei dagokienez, arauen % 22 generoaren aldetik neutrotzat hartu zen, eta, ebaluatutako arauen % 18tan, neurri zuzentzaileak sartzea eragin zuten. Neurri zuzentzaileek honako hau ekarri dute, besteak beste: genero-ikuspegia sartzea (14 kasu), emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkariak orekatua sustatzea (10 kasu) eta ekintza positiboko neurriak hartzea (9 kasu). Egindako 285 inpaktu-txostenetatik, bostetan soilik sartu dira debeku- edo zigor-neurriak.

Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak eta bi udalek inpaktuari buruzko aurretiko ebaluazioak arautzeko zuzentarauak edo bestelako aginduak onartu dituzte. Beste zortzi udal zuzentarau horiek egiteko prozesuan daude.

8. grafikoa: Berdintasun-neurriak gehitzea eragin duten inpaktu-txostenen kopurua eta araua neutraltzat hartzen duten kopurua, erakundeen arabera. 2017




2.1.5. Partaidetza berdintasun-politiketan

Herritarrek bi modutan hartzen dute parte EAEko erakundeek garatutako berdintasun-politiketan⁷: alde batetik, berdintasunaren alorreko kontseiluen eta organoen bidez (haietan, berdintasunaren arloan lan egiten duten erakundeek edo pertsonak politikak zehazten eta jarraipena egiten laguntzen dute); beste batetik, gizarte zibileko erakundeen edo pertsona adituen parte-hartzearen bidez, edo berdintasunekoak ez diren partaidetza-organoetan berdintasunarekin lotutako funtzioak eta helburuak sartuz.

2017an, EAEko erakundeek adierazitakoaren arabera, herritarrek parte hartzeko 173 organo eta batzorde sortu ziren. Haietatik, 38k jorratu zuten emakumeen eta gizonen berdintasuna bakarrik. Foru-aldundiek, Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako bi sailek berdintasun-batzordeak dituzte. Jarraipenean parte hartutako 28 udalerrik ere bazituzten. Apur bat ohikoagoa da espezifikoak ez diren partaidetza-batzordeetan berdintasun-ikuspegia aintzat hartzea; izan ere, identifikatutako partaidetza-batzorde eta -organo guztietatik, erdia baino pixka bat gutxiago (% 46) nolabaiteko genero-ikuspegi dunak edo erabat berdintasunekoak ziren.

9. grafikoa: Berariaz berdintasun-alorrekoak diren edota funtzioetan nahiz osaeran genero-ikuspegia jasotzen duten organoak eta kontseiluak. 2017



2.1.6. Berdintasun-alorreko prestakuntza administrazio publikoetan


4/2005. Legeak 17. artikuluan xedatzen duenez, EAEko erakundeek berdintasun alorreko prestakuntza eman behar diete haien langile guztiei. Teknikariek zein ardua politikoa duten pertsonak genero-eten eta desberdintasun-esparru nagusiei buruzko oinarrizko jakintzak eduki ditzatela da prestakuntza horren helburua, arlo eta jarduera guztietan berdintasuna zeharka bultzatu ahal izateko.

⁷ Berdintasun-planak egiteko prozesuetan parte hartzeaz gain. Prozesu horiek udal-esparruan gertatzen dira bereziki.

2017an, 5.738 pertonek jaso dute berdintasun alorreko prestakuntza, bai erakunde desberdinek bultzatutako barne-prestakuntzaren bai HAEk kudeatutako prestakuntzaren bitartez, edo, are gehiago, beste prestakuntza moten bitartez, non administrazio publikoetako pertonek hartu baitute parte.


Hautemandako prestakuntza horrek guztizkoaren ia %7 hartzen du (parte hartu duten pertona kopuruari dagokionez). Eta berdintasuneko prestakuntza espezifikoa emakumeak gehiengo badira ere, (2017an identifikaturiko 3tik 2 gutxi gorabehera), prestakuntza orokorrari erreparatuz alderantzizkoa gertatzen da eta gizonen parte-hartzea handiagoa da.

10. grafikoa: EAEko administrazioetan prestakuntza (orokorra eta berdintasun-alorrekoa) jaso duten langileak. 2017




11. grafikoa: Administrazio publikoetako emakumeak eta gizonak prestakuntza orokorrean eta berdintasun-alorreko prestakuntzan. 2017

Prestakuntza orokorra




Berdintasunari buruzko prestakuntza




2017an emakumeen eta gizonen berdintasun alorreko prestakuntza jaso duten gehienak Eusko Jaurlaritzako langileak izan dira. Horrezaz gainera, mankomunitate eta partzuergoek parte-hartze maila altua izan dute ere.

12. grafikoa: Berdintasunean trebatutako langileak, erakundearen arabera. 2017



Berdintasun prestakuntzan⁸ parte hartzen duten gehiengoan lanbide-kategoria teknikariarena da, erdia baino gehiago hain zuzen ere. Horrezaz gainera, berdintasuneko prestakuntzan parte hartzen ari diren guztien %24a administrariak dira.

12. grafikoa: Berdintasunean trebatu diren pertsonak, lanbide-kategoriaren arabera.2017



⁸ Maila profesionalaren arabera xehatutako informazioak, informatutako langile guztien heren bat identifikatzen du (1.831 pertsona).

2.1.7. Berdintasun-klausulak administrazio publikoen kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan


Azken urteetan, kontratazio publikoan berdintasun-klausulak sartzea izan da EAeko herri-aginteeek jorrotutako esparruetako bat.4/2005 Legearen 20. artikuluaaren arabera, beharrezkoa da herri-aginteen kontratuetan genero-ikuspegia txertatzea. Beraz, kontratazioen esleipendunak diren erakundeek eta pertsonak ere ezinbestekoa dute ikuspegi hori kontuan hartzea; izan ere, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak ezarri behar dituzte.

Klausulak ez dira berdin txertatu *kontratazio publikoa* izenaren pean sartzen diren modalitate guztietan. Kontratuari dagokienez, klausulak gehienetan erabili izan dira (2017an jakinarazitako kontratuen % 76an). Esaterako, foru-aldundiek esleitutako kontratuetan, % 90tik gorakoa da ezarpen-maila eta %85ekoa Eusko Jaurlaritzako sailen kasuan.

Hitzarmen, diru-laguntza eta laguntzetan, txikiagoa da berdintasun-irizpideak dituztenen ehunekoa: % 41 ingurukoa hitzarmenen kasuan, eta % 21 ingurukoa diru-laguntzen kasuan (% 43, kapital publikoko enpresek emandako diru-laguntzak, 2017an identifikatutakoen ia erdiak, alde batera uzten badira).Bekei dagokienez, berdintasun-irizpideak dituztenak guztien % 63 izan dira.

2017an, udalak (5) eta kapital publikoko enpresak (4) kontratuetan berdintasun-klausulak sartzeko zuzentarauak eta aginduak onartzeko fasean zeuden. Gainera, sei udalek diru-laguntzak ere sartu zituzten prozesu horretan. Ordura arte, 22 erakundeek onartu zituzten zuzentarau horiek kontratuetarako, eta 14k diru-laguntzetarako.

13. grafikoa: Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan. 2017




2.1.8. Berdintasun-alarreko beste helburu garrantzitsu batzuen bilakaera gobernantzaren esparruan

Plan sektorial eta zeharkakoak

Erakundeen politika eta jarduketa guztietan genero-ikuspegia sartzea legezko agindu bat da; lehenago aipatu dugunez, betebeharrak hori 4/2005 Legearen 3.4. artikuluan dago jasota. Politika publikoetan genero-ikuspegia modu sistematikoan eta berdintasun-ikuspuntu sendo batetik sartzen dela bermatzeko, komenigarria da berdintasun-teknikariek parte hartzea politika horiek planifikatzean eta gauzatzean.

2017an, herri-administrazioek onartutako hiru sektore-planetatik ia bik (65etatik 42k) emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako helburuak zituzten, eta, plan horien erdietan, genero-adierazleak sartu ziren jarraipenaren eta ebaluazioaren plangintza egitean. Plan horiek egitean, berdintasun-teknikarien parte-hartzea zertxobait txikiagoa izan zen; hain zuzen, 28 planetan hartu zuten parte. Planak ezartzean, are txikiagoa izan zen parte-hartze hori. Udal-esparruan, sektoreko edo zeharkako planak eta programak egitean, berdintasun-unitateen parte-hartzea proportzionalki handiagoa izan zen, baina jakinarazitako planen kopurua txikiagoa izan da.

14. grafikoa: Genero-ikuspegiaren ezarpen-maila EAEko administrazio publikoen plangintzan. 2017



Koordinazio egiturak


Berdintasun-alarreko langileek erakundeen koordinazio-egituretan parte hartzea oso baliagarria da erakundeen jardueran berdintasuna zeharka sartzeko. Berariazko berdintasun-egituren bidez edo zeharkako edo sektoreko koordinazio-egituren bidez har dezakete parte. Koordinazio-modurik ohikoena berdintasun-teknikariek erakundeen koordinazio-egitura orokorretan edo espezifikoen (sail artekoetan) parte hartzea da. Bestalde, erakundeen arteko koordinazioa ere ohikoa da; kasu horretan, Emakunderen lana da aipatzekoa, berdintasunekoak ez diren 10 egituretan parte hartu baitzuen.

15. grafikoa: Berdintasun-alarreko unitateen eta langileen partaidetza euren erakundeetako koordinazio-egitura orokorretan



Berdintasunarekin lotutako egiturei dagokienez, erakundeen arteko koordinazioa nabarmentzen da, oso egitura esanguratsuak baitaude esparru horretan. Hona hemen zenbait adibide: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea (hartan, erkidegoko, foruko eta tokiko administrazioek hartzen dute parte); Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea; Berdinsarea, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea; eta Berdinbidean (udalerrri txikietan berdintasunerako politikak sustatzeko, koordinatzeko eta udalerrri horiei laguntza teknikoa emateko zerbitzua). 2017an, arlo horretan identifikatutako 89 parte-hartzeen erdiak baino gehiago udalena izan ziren.

16. grafikoa: Berdintasunari lotutako erakunde arteko koordinazio-egituretako parte-hartzea. 2017



Estatistika eta ikerketak

4/2005 Legeak, 16. artikulua bidez, EAEko erakundeei eskatzen die egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan genero-ikuspegia sistematikoki sartzeko. Ezinbestekotzat jotzen du, genero-ikuspegia eguneroko jardueretan benetan barneratuko dela bermatzeko.

Hala ere, jarraipenaren emaitzek jakitera ematen dutenez, erakunde publikoentzat eta, bereziki, udalentzat ez da erraza egiten dituzten estatistika eta ikerketa guztietan genero-ikuspegia sistematikoki sartzea. Emakunde eta, neurri txikiago batean, Eusko Jaurlaritzako sailak salbuespena dira. Udalerrietan, genero-ikuspegia txertatzeko mailarik oinarrizkoena eta ohikoena ere (alegia, sexu-aldagaia ikerketetan eta estatistiketan sartzea) oso gutxitan bete zen.


Erakundeek jakinarazi dutenez, 298 prentsa-oharretan banakatu zituzten datuak sexuaren arabera (bereziki, udalak eta Eusko Jaurlaritzak), eta EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko 42 ikerketa espezifiko egin zituzten; ikerketa horietako gehienak sektore edo kolektibo jaki batzuei buruzkoak izan ziren.

Ordezkaritza orekatua

Herri-administrazioen beste helburu bat erabakigune nagusietan eta ikusgarritasunean emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzea da, hala nola enplegu publikoa eskuratzeko, betetzeko eta sustatzeko epaimahaietan. 2017an, erakundeek emandako informazioaren arabera, epaimahai horien % 61ek bete zuen 4/2005 Legearen 20. artikuluan jasotako baldintza hori; dena den, baldintza bete ez zuten epaimahai gehienek kasuan, hiru kidek osatu zuten, eta horrek oreka galarazi zuen. Sariak emateko edo kultura-ondasunak erosteko eratutako epaimahaiei dagokienez, gehienak (% 76) orekatua egon ziren.


Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sistematizatze aldera, epaimahaien eraketari buruzko klausulak dituzte erakundeek. Hala ere, baldintza hori ez da beti betetzen, batik bat enplegu publikoa lortzeko epaimahaietan (epaimahai guztien % 37).

17. grafikoa: Epaimahaietan eta auzitegiatan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua. 2017



EAEko erakundeek 2017an identifikatutako kide anitzeko 225 zuzendaritza-organoen erdiek baino gehiagok (% 56) emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua zuten. Udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek zituzten kide anitzeko zuzendaritza-organo horietako gehienak. Hain zuzen, udalek izan zuten oreka handiagoa kide anitzeko zuzendaritza-organoen osan.


18. grafikoa: Ordezkaritza orekatua kide anitzeko organoetan. 2017



2.2. Eskuhartzeko ardatzen jarraipenaren emaitzak

Jarraipen-prozesuan lortutako informazioen arabera, EAeko erakundeek 777 ekintza jarri zituzten martxan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko euren politikan. Eusko Jaurlaritzako sailak eta udalak izan ziren ekintza gehien egin zituztenak (hurrenez hurren, ia % 35 eta % 28), eta, ondoren, Emakunde eta foru-aldundiak. 2017an, egindako 10 jarduketetatik ia 6k aurreko esku-hartzeen jarraipena izan ziren. Emakunderen eta foru-aldundien esku-hartzeetan, ohikoagoa da aurreko urteko jarduketek jarraitzea. Eusko Jaurlaritzako sailetan, berriz, esku-hartzeen erdiek, gutxi gorabehera, aurreko urtetik jarraitzen dute, eta beste erdiak berriak dira. Kapital publikoko enpresetan, esku-hartze berriak dira nagusi.

19. grafikoa: EAEn berdintasun-alarrean jorratutako jarduketek kopurua, erakundearen arabera. 2017



Erakundeek egindako ekintzak oso bestelakoak dira helburuari, motari eta irismenari dagokienez. Hurrengo ataletan, ekintzen aniztasun hori aztertuko dugu.


2.2.1. Esku-hartzeen helburu politikoak

Egindako jarraipenean, esku-hartzeen helburuak antolatu ditugu VI. Planak identifikatzen dituen hiru ardatzen arabera. Hauek dira ardatzok: balioak aldatzea eta emakumeak ahalduntzea, hiru helburu uztartzen dituen ardatza (gizartean emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kultura bultzatzea; emakumeak ahalduntzea eta sustatzea; eta emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu lortzea erabaki- eta eragin-guneetan); gizarte-antolaketa erantzunkidea, pertsonen zaintzari emakumeak, gizonak, enpresak eta herri-administrazioak barne hartzen dituen ikuspegi integral batetik heltzen diona (ardatz horri lotutako helburua erantzunkidetasuna da); eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea (Planaren hirugarren ardatza da, eta indarkeria desagerraraztea du helburu).

Oinarrizko helburu horiekin batera, gobernantza hobetzeko esku-hartzeak ere txertatu dira jarraipenean. Kontzeptuari dagokionez, Planaren lehen zatikoak dira esku-hartze horiek, administrazioek alor horretako ekintza garrantzitsuen berri eman dezaten.

Helburuek ez dute elkar baztertzen, eta, jarduketek helburu nagusi bakar bat bete dezaten ahalegindu arren, ohiko samarra da ekintzek helburu bat baino gehiago betetzea. Edonola ere, 2017an, *gizartean balioen aldaketa sustatzea*, oro har beste esku-hartze batzuen oinarritzat hartzen dena, herri-administrazioen esku-hartze gehienek (311) xedea izan zen. Udalek eta Eusko Jaurlaritzako sailek egin zituzten helburu hori lortzeko ekintza gehien (99 eta 84, hurrenez hurren). Dena den, foru-aldundien eta Emakunderen ekintzen helbururik ohikoena ere izan zen. Helburu horretan, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak, jardunaldiak eta ikerketak jorratu dira, besteak beste.

20. grafikoa: Helburu politiko jakin bat lortu nahi duten jarduketek kopurua. 2017



